Araugintza
I. ikastaroa



2. saioa
Ortografia

Arauen laburpena
Ohiko akatsak

Ariketak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

Ortografia. Ariketa orokorra 3
ORTOGRAFIA ARAUEN LABURPENA 5
"Ordinalen eta banatzaileen idazkera" 5
"Arabera" 5
"Iritzi" 5
"Ba-" eta "Gabe"-ren idazkera 6
"-(e)z gero" 6
"Hori eta, Hori edo" eta horrelakoen idazkera 7
"-ari (-lari)" atzizkiaz 7
"-ari / -ario" atzizkiez 8
"-go" atzizkia eta izen multzokariak 8
Hitz elkarketa 9
ARAUAK: ARIKETAK 11
Ortografia, nahas-mahas 11
Ordinalak eta banatzaileak 12
Atzizkiak lantzen 13
Hitz elkarketa 14
ORTOTIPOGRAFIA: TEORIA 19
1. Ordinalak 19
2. Ehunekoak 19
3. Siglak 20
4. Nazioarteko ikurrak 21
ORTOTIPOGRAFIA: ARIKETAK 23
1. ariketa 23
2. ariketa 24

Ortografia. Ariketa orokorra

Hauta itzazu zuzenak direnak (kontuan izan ezazu multzo bakoitzean bakarra aukeratu behar dela)

1.

1.1. a) Hogeita bosgarren urteurrena ospatuko dute.

b) Hogeita bostgarren urteurrena ospatuko dute.

c) Hogeita boskarren urteurrena ospatuko dute.

d) Zenbagarren urteurrena ospatuko dute?

1.2. a) Milana euro eskatu dizkigute.

b) Mila bana euro eskatu dizkigute.

d) Zenbatna gozoki emanen diezu?

2. a) Zuzendariak esandakoaren arabera, ikasle gehienak gaztelaniaz mintzatzen dira karrikan.

b) Zuzendariak esandakoaren arauera, ikasle gehienak gaztelaniaz mintzatzen dira karrikan.

c) Zuzendariak esandakoaren araura, ikasle gehienak gaztelaniaz mintzatzen dira karrikan.

3. a) Gehiago zehaztu beharko genuke zenbait ebaluazio irizpide.

b) Gehiago zehaztu beharko genuke zenbait ebaluazio erizpide.

4. a) Mikel garaiz etortzen ba da, denok elkarrekin afalduko dugu.

b) Mikel garaiz etortzen bada, denok elkarrekin afalduko dugu.

c) Ba dator autobusa.

5. a) Guraso batzuk berandu iritsi direnez gero, bilera amaitutakoan emanen dugu oharra.
   b) Guraso batzuk berandu iritsi diren ezkero, bilera amaitutakoan emanen dugu oharra.
   c) Guraso batzuk berandu iritsi ezkero, bilera amaitutakoan emanen dugu oharra.

6. a) Edurne ta ikusi ditugu liburu-dendan.
   b) Edurne-ta ikusi ditugu liburu-dendan.
   c) Edurne eta ikusi ditugu liburu-dendan.

7. *Zein da zuzena?*
   a) *Gramatikalari*
   b) *Dantzari*
   c) *Politikalari*
   d) *Ikerlari*

8. *Zein da zuzena?*
   a) Unibertsitari kopurua izugarri hazi omen da Iruñean.
   b) Ospe txarra dute Administrazio publikoan lan egiten duten funtzionarioek.
   c) Bi parlamentarik uko egin omen diote proposamen hori bultzatzeari.

9. *Zein da egokiena?*
   a) Ikastetxe honetako irakaslegoa.
   b) Ikastetxe honetako irakasleria.
   c) Ikastetxe honetako irakasleak.

ORTOGRAFIA: ARAUEN LABURPENA

"Ordinalen eta banatzaileen idazkera"

(18. araua, 115. or.)

a) **Ordinalak.** Ordinaletan "garren" ahoskatzen denean, idaztean puntua jarriko da haren ordez: ***XX. mendea, 7.ak esan du,*** etab.

Ordinalak letra bidez emateko garaian kontuan hartu beharreko bi kasu:

- ***Hogeita batgarren, hirurogeita batgarren...***
- ***Bosgarren, hogeita bosgarren, hirurogeita hamabosgarren...***
- Galderetan, ***zenbatgarren*** erabiliko da.

b) **Banatzaileak.**

- ***Bana, bosna, ehuna, mila bana,*** etab.
- Galderetan ***zenbana*** erabiliko da.

"Arabera"

(21. araua, 121. or.)

Euskara baturako, erdarazko *"según / selon"*-en euskal ordaintzat onartzen den forma bakarra **"arabera"** da.

"Iritzi"

(22. araua, 123. or.)

Forma hau da euskara baturako ontzat ematen dena, **eretxi*, **erizpide* eta antzekoak baztertuz. Aditz zein izen gisa erabil daiteke:

- **Iritzi**
- **Oniritzi**
- **Irizpide**
- **...**

“Ba-” eta “Gabe”-ren idazkera

(24. araua, 127. or.)

Ba- aurrizkia, baldintza zein baietza adierazteko erabiltzen denean, aditzari lotua idatziko da beti:

a. *Mikel etortzen **bada,** elkarrekin afalduko dugu.*

b. ***Badator** Mikel.*

Aurrizkiaren eta aditzaren artean hitzen bat tartekatzen bada, orduan **ba** bereiz idatziko da:

a. ***Ba** omen dator Mikel.*

b. ***Ba** ote dator Mikel?*

Gabe hitza bereiz idatziko da. Partitiboaren marka har dezake **gabe-**ren aurreko hitzak nahiz *gabe*-k berak ere, baina ez biek aldi berean; markarik gabe ere erabil daiteke:

a. ***Argirik gabe***

b. ***Argi gaberik***

c. ***Argi gabe***

Argirik gaberik* ez da onartzen. *“Barik”*** forma ere ontzat ematen da, *gaberik*-en aldaera moduan.

“-(e)z gero”

(26. araua, 143. or.)

Aditzaren ostean, beti **–(e)z gero** idatziko da: *Hori eginez gero; hori egin dugunez gero.*

Orduekin eta bestelako denbora postposizioetan, **ezkero** ere erabil daiteke: *Hamarrez gero* edo *hamarrak ezkero, San Ferminez gero* edo *San Ferminak ezkero, atzoz gero* edo *atzo ezkero.*

“Honezkero, horrezkero eta harrezkero” aditzondoak honela idatziko dira, horrela erabili baitira euskararen literatura tradizioan, nahiz *horrezkero* aditzondoaren maiztasuna beste biena baino askoz ere apalagoa den.

“Hori eta, Hori edo” eta horrelakoen idazkera

(27. araua, 145. or.)

- Egitura hauetan guztietan ageri diren juntagailuak osorik idatziko dira beti: *“eta, edo”*. Euskara baturako ez dira ontzat ematen **Ander ta ikusi ditut* eta **Amaren gaixotasuna dela-ta etorri dira* bezala idatziriko esapideak.

- Esan nahi dena aise ulertzen bada, juntagailua bereiz idatziko da (hau da, ez da marratxorik erabili beharko), nahiz eta ondoren koma ere jar daitekeen: *Hor daude Nekane eta, barrura sartzeko beldurrez.*

Perpaus konplexuetan, berriz, argitasunerako beharrezko ikusten denean, marra para daiteke: *Esan didate, beharbada, heldu den astean-edo joaten ahalko direla zuen etxera* edo *Atzo jaietan ikusi genituen lagunak-eta prest omen daude zuekin bidaia hori egiteko.*

“-ari (-lari)” atzizkiaz

(49. araua, 271.or.)

Erabil bedi ***–ari*** forma, **“-a”** bokalaz amaitzen diren izen oinarriei eransteko, batez ere bi silabatik gorakoak direnean. Beraz, ***gramatikari*** edo ***politikari*** erabil bitez batasunerako (eta ez, **gramatikalari edo *politikalari).*

“-ia” amaierako izenekin, ***-ialari*** hobesten da: ***historialari, zientzialari.***

Era berean, erants bekio ***–ari*** atzizkia izenari, eta ***–le*** edo ***–tzaile*** atzizkiak, berriz, aditzei. Hortaz, ***hezle, hezitzaile*** edo ***ikertzaile*** dira batasunerako formak, **hezi** eta **ikertu** aditzak baitira.

Aditz batek adiera bat baino gehiago izan dezakeenean, zilegi izan daiteke adiera batean ***–le*** edo ***–tzaile*** eranstea, eta ***–ari*** beste adieran: ***idazle / idazkari, zuzentzaile / zuzendari.***

“-ari / -ario” atzizkiez

(50. araua, 273. or.)

Erdal ***–ario*** (gaztelaniaz) ***/ -aire*** (frantsesez) atzizkiez osatutako hitzak mailega bitez ***“-ario”*** forman, eta ez ***–ari*** forman.

- *Izenak:* ***notario, komisario, funtzionario...*** (salbuespenak *Hiztegi Batua*n zehaztuko dira. “Parlamentari” salbuespena da).

Gaztelaniaz	Frantsesez	Euskaraz
Notario Comisario Funcionario ...	Notaire Commissaire Fonctionnaire	***Notario*** **Komisario** **Funtzionario**

- *Izenondoetan****, (talde) parlamentario, (sistema) planetario, (jokabide) sektario...*** Baina ahal dela, maileguz hartutako erdal izenondoen ordez, hobe euskal egituraren araberako ordainak erabiltzea: *talde parlamentario* esan beharrean, ***parlamentu(ko)talde,*** edo *sistema planetario* esan beharrean ***planeta-sistema*** edo ***planeta sistema.***

Gaztelaniaz	Frantsesez	Euskaraz
Grupo parlamentario Sistema planetario ...	Groupe parlementaire Système planétaire	***Talde parlamentario*** **Sistema planetario** Hobe... **parlamentu(ko) planeta(-)sistema** erabiliko bagenu.

“-go” atzizkia eta izen multzokariak

(73. araua, 481. or.)

Euskaraz askotan ez dago izen multzokariaren beharrik, nahikoa da plurala erabiltzea: *ikastetxe honetako irakasle eta ikasleak, herri bateko biztanleak, hizkuntza bateko hiztunak...*

Hala ere, izen multzokaria beharrezkoa denean, *“-eria”* atzizkia erabil bedi: *langileria, gazteria, biztanleria* edo *bezeria.*

“-go” atzizkia erabil bedi:

- Ofizioa, lanbidea adierazteko: *artzaingoa, zurgingoa...*
- *tasuna* adierazteko: *euskaldungoa, ahaidegoa...*

Hitz elkarketa

(25. araua, 135. or.)

1. Bereiz idatziko dira:

- **Aposizioak** (Arga ibaia, Aralar mendia).
- **Egin, eman, hartu eta eragin** aditzekin osatzen diren aditz elkarteak (lo egin, hitz eman, parte hartu, negar eragin).
- **Etxez etxe moduko bikoiztapenak** (herriz herri).
- **Egin berri modukoak** (amaitu berri, esan berri).
- **Mahai gainean gisako postposizioak** (etxe atzean).
- Bigarren osagaia **bila, eske edo falta duten elkarteak** (ur bila, barkamen eske, lo falta...).
- **Lehen osagaia erdal, euskal, giza eta itsas duten elkarteak,** ihartuak ez diren neurrian. (erdal itzulpena, euskal gramatika, giza zientziak, itsas garraioa...).
- **Lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean** (biologi azterketa).

2. Marrarekin idatziko dira:

- **Gorri-gorria** moduko bikoiztapenak.
- **Apurka-apurka** bezalako bikoiztapenak.
- **Seme-alabak**, **zuri-gorri** modukoak.
- **Barra-barra, plisti-plasta** bezalakoak.
- **Gernika-Lumo** moduko leku izen elkartuak (bi hizkuntzatan ematen direnean, ordea, ez: Lizarra / Estella).

3. Loturik idatziko dira:

- **Jarleku** moduko elkarteak (aditz-erro + izen) : egongela, helmuga, idazmakina...
- **Aldagaitz** bezalako **izaera elkarteak** (aditz-erro + izenondo) : asmaezin, ulerterraz, minbera...
- **Odolustu** moduko **aditz-elkarte** arruntak: indargaldu, biziberritu, azpimarratu...
- Bigarren osagaia **-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe** edota **-gintza, -za(i)ntza** duten elkarteak.
- **Bigarren osagaia -aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -kide, -(k)ume, -orde** duten izen elkarketak.
- **Lehen osagaia aurre-, azpi- eta gain-** duten izen elkarteak.
- **Lauburu moduko elkarteak** (zenbatzaile + izen): ehunzango, begibakar...

4. Marrarekin edo marra gabe, nahi den bezala.

- **Eguzki lore, eguzki-lore** moduko izen elkartu arruntak.
- **Kale garbitzaile, kale-garbitzaile** modukoak (bi hitzak letra larriz hasten direnean, hobe da, hala ere, marra gabe idaztea).

5. Elkarteko lehenbiziko osagaiak >ia< amaiera duenean, >a<-rekin nahiz >a< gabe idatz daiteke: biologi azterketa, biologia azterketa.

Bestelako >a< itsatsiak ez dira galtzen elkarketa egiten denean, eta hitzak bere osotasunean eman behar dira. Salbuespen dira, dena dela, honako sei hitz hauek: *burdina, eliza, hizkuntza, kultura, literatura eta natura*. Hitz hauek, hala nahi izanez gero, gal dezakete >a< hori. [kultur etxea, kultura (-) etxea].

6. Marrarekin edo loturik idatz daitezkeen hitz elkartuak.

- **Sudur-luze** moduko elkarte arruntak (*izena + adjektiboa*): (*neska*) *sudur-luze* edo *sudurluze; (zezen) adar-motz* edo *adarmotz*...

ARAUAK: ARIKETAK

Ortografia, nahas-mahas

1. Mendira joan ezkero, izugarri nekatuko nintzateke.
2. Gehiegi jan ezkero, tripako mina izanen duzu.
3. Lana ongi egin duzunez gero, ongi baino hobeki sarituko zaitut.
4. Oso arduratsua zenezkero, semaforoa berde jarri arte espaloian itxaroten zuen.
5. Hamarrez gero, haurrek ohean egon behar dute.
6. Goiz abiatu da eta honez gero Bilbon izanen da Patxi.
7. Bederatziak ezkero, afaltzeko ordua da.
8. Uholdeak ezkero, Martinek ez du bururik altxatu.
9. Uholdeez gero, Martinek ez du bururik altxatu.
10. Zer erizten diozu Josuk esandakoari?
11. Dirurik gaberik ezin da ezer lortu mundu honetan.
12. Besteak beste, Edurne ta joan ziren Ana bisitatzera.
13. Trena garaiz ba dator, garaiz iritsiko gara.
14. Diru gabe sartu naiz tabernara eta ordaintzeko garaian... a zer lotsa!!
15. Ea zuzendariak oneritzia ematen dion behingoz nire proposamenari!
16. Sekulako dirutza xahutu nuen... Diskoak ta izan ziren garestienak.
17. Arratsaldeko bostetan-edo ailegatu gara.
18. Depresioa dela-ta, ez dabil batere ongi.
19. Ba al dator Iñaki?
20. Ba dator ekaitza iparretik.

Ordinalak eta banatzaileak

1. Zein da zuzena?
   a) Bost mila euro bana eman zizkiguten.
   b) Bosna mila euro bana eman zizkiguten.
   c) Bost milana euro eman zizkiguten.
   d) Bosna mila euro eman zizkiguten.

2. Zein da zuzena?
   a) Zenbakarrena da Koldo? Hogeita batgarrena.
   b) Zenbatgarrena da Koldo? Hogeita bakarrena.
   c) Zenbagarrena da Koldo? Hogeita bagarrena.
   d) Zenbatgarrena da Koldo? Hogeita batgarrena.

3. Zein BAZTERTUKO zenuke?
   a) Amonak seina euro eman dizkigu.
   b) XIX. mendeko idazleak oso gustuko ditut.
   c) Zenbatna liburu erosi dituzue?
   d) Zenbana sagar jan dituzue?

4. _____ eta _____ aritu dira gaur elkarren aurka.
   a) Titin 3 / Olaizola 2
   b) Titin III / Olaizola II
   c) Titin III.a / Olaizola II.a

5. Zein BAZTERTUKO zenuke?
   a) Milioi bana
   b) milioina
   c) bana
   d) bosna

6. _____ ez zen halakorik gertatzen, _____, ordea, bai.
   a) XVII. mendean / XX.ean
   b) 17 mendean / 20 mendean
   c) XVII mendean / XX mendean

7. Zein BAZTERTUKO zenuke?
   a) hamabosgarren
   b) hamabostgarren
   c) hogeita batgarren
   d) berrogeita batgarren

8. Zein BAZTERTUKO zenuke?
   a) ehungarren
   b) bina
   c) milagarren
   d) milana

Atzizkiak lantzen

-ARI / -LARI, -LE, -TZAILE

A. Erantsi ondoko hitzei dagokien atzizkia.

- *Arraun:* _____
- *Kontatu:* _____
- *Barreiatu:* _____
- *Bildu:* _____
- *Ebatsi:* _____
- *Erosi:* _____
- *Ekarri:* _____
- *Eman:* _____
- *Eskatu:* _____
- *Dantza:* _____
- *Pilota:* _____
- *Hartu:* _____

-ARI / -ARIO

B. Itzuli

- *Solidario:* _____
- *Gente solidaria:* _____
- *Universitario:* _____
- *Revista universitaria:* _____
- *Funcionario:* _____
- *Parlamentario:* _____
- *Grupo parlamentario:* _____

Hitz elkarketa

A. Itzuli

Hermanos	
Abuelos	
Hijos	

Primos	
Cuñados	

B. Osa itzazu esaldiok ematen zaizkizun hitz elkartuez baliatuz

tirriki-tarraka	plisti-plasta	nahas-mahas	zehatz-mehatz	bihotz-bihotzetik
handi-mandi	barra-barra	tapa-tapa	purra-purra	mela-mela
ñir-ñir	mara-mara	mauka-mauka	dinbi-danba	txutxu-mutxuka

1. Zer moduz zabiltza, aspaldiko? Hementxe, _____!
2. Umetxo hauek putzu guztietan sartu eta _____ ibiltzea izaten dute gustuko.
3. Gurekin eserita zegoen arren, ez zigun hitzerdirik ere esan. _____ jan eta ederki edan, horixe zen orduan bere egiteko nagusiena.
4. Menditik jaistean, egundoko euri-erauntsiak harrapatu gintuen eta _____ itzuli ginen.
5. Oiloei jaten emateko, _____ deitzen zaie ingura daitezen.
6. _____ ari du elurra.
7. Zure ametsak egia bihur daitezela opa dizut _____.
8. Nik uste horrela dela. Hala ere, _____ jakin nahi baduzu, kontsulta ezazu gramatika horretan.
9. Besteak baino gehiago dela uste duen _____ besterik ez zara!
10. Apunteetan daukazun _____ hau ulertuko duenik ez da jaio oraindik eguzkiaren azpian!
11. Inguruko guztiak aspertzeraino, isildu gabe _____ hizketan aritzen da egun osoan.
12. _____, bi orduan, egin genuen zure etxerainoko bidea.
13. Erabat sututa, _____ atea itxi eta bere onetik irtenda, alde egin zuen gure ondotik.
14. Beti _____, beti belarrira kontuak esaten harrapatzen ditut.
15. Pozaren pozez begiak _____ zituen.

C. Itzuli

- Precio, lugar de nacimiento, trabajo de investigación, aula de estudio, colegio, máquina de escribir, hora de cenar, hora de comer, escaparate, compraventa, poder adquisitivo.
- Incansable, impensable, incomprensible, inoxidable, ilegible, increíble, inaceptable.
- Derogar, desnatado, descafeinado.
- Trimestre, unicornio, tridente, milenio, quinquenio.
- Anteproyecto, previsión, prejuicio, presupuesto, subcontratación, subcomisión, supervisar, plusvalía, decadencia (declive).
- Carpintero, cantero, trabajador, tesorero, portero, pastor.
- Legislatura, generación, sesión de trabajo, área de servicio, zona verde, momento de lucidez, compañero de trabajo, compañero de estudios , título, capital, jefe de estudios.

D. Erran ezazu bertze modu batez, hitz atzizkidunak baliatuz. Ondoren, azpimarra itzazu atzizkiak eta asmatu bertze adibide batzuk atzizki horiek tarteko direla.

- eskua bete sagar:_____
- saskia bete belar:_____
- platera bete indaba:_____
- basoa bete ur: _____
- kamioia bete hondar: _____
- zorroa bete gozoki: _____

E. Euskaratu

tasa de crecimiento		tasa de mortalidad	
tasa de natalidad		esperanza de vida	
número de habitantes		tipo de gobierno	
deuda exterior		leche de oveja	
queso de oveja		canciones de Navidad	
sala de operaciones		leche en polvo	
tarta de fresa		sopa de pescado	
telaraña		librería	

vendedor de libros		donante de sangre	
instrumentista (musika)		recaudador de impuestos	

participación		matanza del cerdo	
recaudación		derramamiento de sangre	

calvo		generoso	
puntiagudo		exagerado	
sibarita		culo inquieto	
pelirrojo		cara sonrosada	

F. Zuzen itzazu zuzendu beharrekoak

1. AITA AMAK
2. ARRASATE/MONDRAGON
3. DIRU BILKETA
4. ERDAL TESTUAK
5. LAN HITZARMEN
6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
7. HAN HEMENKA
8. HEZKUNTZ ARLOA
9. ERREGE ERREGINAK
10. ETXE BIZITZA
11. ELIZ-ZERGA
12. GIZA-ZIENTZIAK
13. GAUR GAURKOZ
14. ZUZEN ZUZENEAN
15. PARTEHARTU
16. PAUSOZ-PAUSO
17. ESKU-ARTEAN
18. ALFER ALFERRIK
19. JENDE-AURREKO
20. BARKAMEN-ESKE
21. DIRU-BILA
22. TARTEKA-MARTEKA
23. LASARTE/ORIA
24. (LAGUN) ESKU ZABAL
25. FILOLOGI IKASKETAK
26. LEGE GIZONA
27. ORIA-IBAIA
28. MENDIZ-MENDI
29. IZEN DEITURAK
30. GIZAESKUBIDEAK
31. EGIN-BERRI
32. EZKONBERRI
33. ERREFERENTZI-PUNTU
34. BERRI-BERRIAK
35. IKASKUNTZA PROZESUA
36. EROS-AHALMEN
37. SALEROSKETA
38. BURUMAKUR
39. BELARRIMOTZ
40. HIRU-HILEKO

G. Aukera itzazu idazkera zuzenak

a) Ezkaba mendia	b) Ezkaba-mendia	c) Mendi Ezkaba
a) Hitzegin	b) Hitz-egin	c) Hitz egin
a) Banan-banan	b) Banan banan	c) Bananbanan
a) Talde txuri-urdina	b) Talde txuri urdina	c) Talde txuriurdina
a) Joanetorria	b) Joan etorria	c) Joan-etorria
a) Ikasgela	b) Ikas-gela	c) Ikas gela
a) Sines gaitz	b) Sines-gaitz	c) Sinesgaitz
a) Ehunzango	b) Ehun-zango	c) Ehun zango
a) Aurre-ikuspen	b) Aurre ikuspen	c) Aurreikuspen
a) Batzorde-buru	b) Batzorde buru	c) Batzordeburu
a) Lege-aldi	b) Lege aldi	c) Legealdi
a) Harrijasotzaile	b) Harri-jasotzaile	c) Harri jasotzaile
a) Heriotza tasa	b) Heriotze tasa	c) Heriotz tasa
a) Gabon-kantak	b) Gabon kantak	c) Gabonetako kantak
a) Odol emale	b) Odol-emaile	c) Odol emaile
a) Foru Aldundia	b) Foru-Aldundia	c)
a) Buru soil	b) Buru-soil	c) Burusoil
a) Behi-esne	b) Behi esne	c) Esne-behi
a) Indar-berritu	b) Indarberritu	c) Indar berritu
a) Azpibatzorde	b) Azpi-batzorde	c) Azpi batzorde
a) Dinbili-danbala	b) Dinbili danbala	c) Dinbilidanbala
a) Diru-eske	b) Diru eske	c) Dirueske
a) Hiruhortzeko	b) Hiru-hortzeko	c) Hiru hortzeko
a) Milurteko	b) Mil urteko	c) Mil-urteko
a) Sistema planetario	b) Planeta-sistema	c) Planeta sistema
a) Jendaurrean	b) Jende-aurrean	c) Jende aurrean
a) Piano jotzaile	b) Piano-jotzaile	c) Pianojotzaile
a) Biologi irakasle	b) Biologia irakasle	c) Biologia-irakasle
a) Literatur-sari	b) Literatur sari	c) Literatura sari
a) Aldegin	b) Alde egin	c) Alde-egin
a) Zirti-zarta	b) Zirti zarta	c) Zirtizarta
a) Behin betiko	b) Behin-betiko	c)
a) Boskarren	b) Bostgarren	c) Bosgarren

ORTOTIPOGRAFIA: TEORIA

1. Ordinalak

- *Zenbatgarren* adierazteko, letraz idatzi ezean, puntua jartzen da beti zenbakiari itsatsita (baita zenbaki erromatarrekin ere).

  Adib.: *Aldaketak egin dituzte 5. artikuluan eta 6.ean.*

  Iaz egin zen Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra.

- Zenbaki arabiarrak ez ezik, erromatarrak ere erabiltzen dira, honelako kasuetan:

	adibideak	salbuespenak
Mendeak adierazteko.	XIII. mendea XXI. mendea	
Errege, aita santu eta kirolarien izenetan.	Benedikto XVI. aita santua, Olaizola II.a...	
Ekitaldi, jaialdi, jardunaldi eta gisakoetan.	Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra.	20tik gora, zenbaki arabiarrak erabiltzen dira: Donostiako 49. Zinemaldia (ez "Donostiako IL. Zinemaldia").

- ***Hamarkada* edo *hamarraldiak***. 1961-1970 bitartea ez da *60. hamarkada.* Hortaz, *60ko hamarkada* edo *60ko urteak* esaten zaio hamar urteko multzo horri.

2. Ehunekoak

- Ehunekoak zifraz ematen dira, % zeinua aurretik dutela: *%5, %10...* (Eztabaida dago zeinuaren eta zenbakiaren artean tarterik utzi behar den ala ez).

- Ehunekoak zenbaki arruntak bezala deklinatzen dira, zenbakiaren amaiera kontuan hartuta: *%5ek, %8ren...*

- Artikulurik gabe deklinatu behar dira ehunekoak: *%5 etorri dira (*ez ***%5a** *etorri da), %5ek egin dute, %5i gertatu zaie...*

- Erreferentziazko izena plurala denean, aditza ere pluralean emateko joera dago, aurreko adibideek erakusten dutenez. Beste batzuetan, ordea, erreferentziazko izena singularra da, eta aditza ere hala joaten da:

  Ikasleen %60k gainditu dute EGA azterketa.

  Aurrekontuaren %40 Udalak ordainduko du.

- Artikulua beharrezkoa da inoiz, ehunekoa inguruak mugatua denean: *Gainerako %60a publizitate bidez lortu nahi da.*
- Bi joskera hauek dira egokiak:
  - Langileen %10ek istripuren bat izan dute inoiz.
  - %10 langilek istripuren bat izan dute inoiz.
- Kontuan izan beste joskera hau ere zuzena dela:
  - Ehunetik 10 langilek istripuren bat izan dute inoiz.

Ez	Bai	Esan
%5a alde dago %5ak ez daki euskaraz %5ari eman diote laguntza	**%5 alde daude** **%5ek ez dakite euskaraz** **%5i eman diete laguntza**	***Ehuneko bost alde daude*** *Ehuneko bostek...* *Ehuneko bosti...*
%40a eman du Udalak	**%40 eman du Udalak**	*Ehuneko berrogei eman du...*
gainerako %60, falta den %60	**gainerako %60a, falta den %60a**	*Gainerako ehuneko hirurogeia...*

3. Siglak

- Sigla letra larriz eta jarraian idazten da; alegia, letra artean punturik gabe.
  - *EB (Europako Batasuna).*
  - *AEB (Ameriketako Estatu Batuak).*
- Sigla bat lehendabizikoz ematen dugunean testu batean, komenigarria da siglaren azalpena ematea.
  - *UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea)*
  - *Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).*
- Siglak deklinatzeko garaian, ahoskeraren eta izen bizigabeen arabera deklinatzen dira eta deklinabide-atzizkia marratxorik gabe lotzen zaie gehienetan.
  - *EBko (e-be-ko).*
  - *EHEk (e-hatxe-e-k).*
- Zenbait kasutan marratxoa jarri egin behar da:
  1. Siglaren amaieran eta atzizkiaren hasieran letra bera dugunean:
     - *AEK-ko.*
  2. Letra larriz doazen testu-zatietan eta izenburuetan.
     - *EAE-KO DYA-REN TXOSTENA.*

4. Nazioarteko ikurrak

- Neurriak: unitateen zeinuak ez dira laburdurak, baizik eta nazioarteko sinbolo edo ikurrak, eta punturik gabe idazten dira:

Unitatea	Sinboloa
Kilo (kilogramo)	kg
Kilometro	km
Metro	m
Zentimetro	cm
Milimetro	mm
Gramo	g

Deklinatzea egokitzen bada, marratxoa jartzen da: *10 km-ko ibilbidea.*

- Zientziaren alorrean euskaraz ere nazioarteko arauak beteko dira. Neurri-izenetan, adibidez, nazioarteko sinboloak erabiliko dira (beraz, punturik gabe idatziko ditugu):

mm (milimetro) **cl** (zentilitro) **km/h** (kilometro **Hz** (hertz)
ºC (gradu du nahiz Celsius **t** (tona) **W** (watt)

...

- Zenbakiaren eta neurri-izenaren artean hutsunea utzi behar da:
  - 20 ºC daude gure etxeko egongelan.
  - 25 cl oliba-olio asko al da?
- Deklinatzean, neurri-izenen sinboloei marratxoaren bidez erantsiko zaie deklinabide-atzizkia.
  - 25 kg-ko fardelak egin ditugu.
  - Hemendik 10 km-ra dago zure herria.
  - Batez beste 100 km/h-ko abiaduran egin dugu bidaia.
- **Abiadura kontuak** irakurri behar ditugunean, honela jokatu behar da:

a) Neurri-unitatea deklinatu gabe badago:

5 m/s irakurtzeko, bi aukera ditugu: *"bost metro segundoko"* edo *"segundoko bost metro"*

b) Neurri-unitatea deklinatuta badago:

- 5 m/s-tik 3 m/s-ra. Aukera bakarra: "*segundoko bost metrotik, segundoko hiru metrora"*.
- 5 m/s-ko abiadura. Aukera bakarra: "*segundoko bost metroko abiadura"*.

c) ***"Halako abiaduran"*** egitura gomendatzen da "ibili, joan" eta gisako aditzekin erabiltzeko; eta ez ***" Halako abiaduraz"(??)*:**

- **Nik uste, batez beste 100 km/h-an ibiltzen naizela autobietan.**
- ***(??)*** *Nik uste, batez beste, 100 km/h-z ibiltzen naizela autobietan.*
- **Nik uste, batez beste orduko ehun kilometroan ibiltzen naizela autobietan.**
- ***(??)*** *Nik uste, batez beste, orduko ehun kilometroz ibiltzen naizela autobietan.*
- ***Zer abiaduratan etorri zara bide horretatik?***
- ***(??)*** *Zer abiaduraz etorri zara bide horretatik?*

ORTOTIPOGRAFIA: ARIKETAK

1. ariketa

Ordinalak

Ø	1go mailako
Ø	1. mailako
Ø	2garren mailako

ikasleak Urbasara joango dira.

Ø	60. hamarkadan
Ø	60ko hamarkadan
Ø	60-ko hamarkadan

sortu zen euskal nobela modernoa.

Nazioarteko ikurrak

Ø	2 m.-ko altueratik
Ø	2 m-ko altueratik
Ø	2 m.ko altueratik

egin zuen salto.

Ø	8 zm.-ko lodiera
Ø	8 cm-ko lodiera
Ø	8 cm.ko lodiera

dauka ohol honek.

Ehunekoak

Ø	Botoen %31,3a
Ø	Botoen %31,3
Ø	Botoen %31,3-a

eskuratu zituen irabazleak.

Ø	Langileen %10-ek
Ø	Langileen %10ek
Ø	Langileen %10ak

istripuren bat izan dute inoiz.

Siglak

Ø	E.A.E.-ko emakumeen %88k
Ø	EAEko emakumeen %88k
Ø	EAE-ko emakumeen %88k

ematen diote bularra umeari.

Ø	LAB-ek eta ELA-k
Ø	LABek eta ELAk
Ø	L.A.B-ek eta E.L.A.-k

bilera egitea eskatu diote enpresaburuari

Ø	D.B.H.-ko 3. mailakoek
Ø	DBHko 3. mailakoek
Ø	DBH-ko 3. mailakoek

11:00etan izango dute atsedenaldia.

2. ariketa

1. 20ºC daude gure etxeko egongelan.
2. 20 gradu zentigradu daude gure etxeko egongelan.
3. 20 gradu centigradu daude gure etxeko egongelan.
4. 25 cl. oliba-olio asko al da?
5. 25 centilitro oliba-olio asko al da?
6. 25 zentilitro oliba-olio asko al da?
7. 25 kg.-ko fardelak egin ditugu.
8. 25 kiloko fardelak egin ditugu.
9. Hemendik 10 km.ra dago zure herria.
10. Hemendik 10 km-ra dago zure herria.
11. Hemendik 10 kilometrora dago zure herria.
12. Zer abiaduraz etorri zara bide horretatik?
13. Zer abiaduran etorri zara bide horretatik?
14. Zer abiaduratan etorri zara bide horretatik?
15. Bataz beste 100km/h-an.
16. Bataz beste 100km/h-az.
17. Bataz beste orduko ehun kilometroan.
18. Bataz beste orduko ehun kilometroz.
19. Ibilgailuak moteldu egin du abiadura: 6m/s-tik 4m/s-ra pasatu da 15 segundoan.